

# Hagina

## *Taxus baccata*

Koniferoen taldekoa da, beraz, ez ditu fruiturik ematen baizik eta, pinaburu berezi batzuk, gorri eta mamitsuak direnak.

Hagina espezie **dioikoa** da, hori dela eta, ale emeak eta arrak ditu.

Oso urtetsua da eta ingurune hezeetan bizi da, temperatura leunak dituzten inguruetan.

**...2000 Urte bizitzera heldu daiteke**

Hagina toxikoa eta hilgarria den osagai bat dauka, **taxina**, beraz zuhaitz pozoitsua da. Pozoitsua ez den zati bakarria haziak inguratzen duen estalkia da, ariloa. Gaur egun toxina hilgarri hori, medikuntzan ikertu eta erabiltzen da.

Haginaren egurra sendoa eta malgua denez, hainbat gauza egiteko erabili izan zen, beraien artean **arkuak** egiteko oso preziatua zen.

### Hagina kontserbatzeko neurriak

Inguruko zuhaitzen dosifikazioa, haginak oso mantso hazten dira eta beste motatako zuhaitzak azkarrago hazten direnez, itzaletan gelditu daitezke.

Lurraren malda leundu, terrazak sortuz, hagin haziak errazago ernamuindutzeko.

Espazio ireki gehiago sortzea, komenigarria izaten da basoan eremu batzuk zabaltzea, hauetan eguzkiaren argia sartzeko, hórrela haginak aukera dute populazioa berrizteko. Lauak diren eremuak badira hobeto.

 Nafarroan ez da espezie babestua, baina hagin gehienak leku babestuetan daude, eta horietan kontserbazio neurriak ezartzen dira.

DESKUBRITU  
IBAIKO  
FAUNA ETA  
LANDARETZA



# Hagina identifikatzeko gai izango zinateke? Sahiatu zaitez!



## Laguntza behar duzu? Gogoratu!

- Koniferoen taldekoa da, pinuak bezala.
- Bere pinaburuak ez dira beste koniferoenak bezalakoak, hazia inguratzen duen fruitu faltsu gorrixka dute.
- Osto linealak ditu punta forman bukatzen direnak eta orrazi bikoitzaren itxurakoak.